

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2021eko azaroaren 18a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Andoni Torres Fernandez zinegotziak (EAJ) eta Jon Basurko Sarasua zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri eta, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko «Zaharren babeslekua» taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua.
- 2.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO «ZAHARREN BABESLEKUA» TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZUA ETA GARBIKETA- ETA MANTENTZE-ZERBITZUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahai publikoaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ADJUDIKATZEA MIGUEL ANGEL REKARTE URRETABIZKAIA Orioko «Zaharren babeslekua» taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua, baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza teknikoan agirietan xedatutakoaren arabera eta adjudikaziodunak berak aurkeztutako proposamenean azaldutako terminoetan.

Kontratuaren prezioa 350 eurokoa da hilean (%21eko BEZik gabe), eta kontratuaren iraupena 3 urtekoa da. Beste bi urtez luzatzeko aukera dago, bi aldeek hala erabakitzen badute.

Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei azaltzen die zein izan den tramitazioa Orioko «Zaharren babeslekua» taberna-jatetxearen zerbitzua eta horren garbiketa- eta mantentze-zerbitzua kontratatzeko. Adierazten du, baita ere, prozeduran zehar, etengabeko harremanean egon direla Zaharren babeslekuko kideekin eta besarkada eta muxu bana bidali nahi diela inplikaturako guztiei. Adierazten du, bestalde, kontratazio-mahaiak udalbatzarrari egin diola zerbitzua kontratatzeko proposamena, eta ez alkatetzari, ohikoa den moduan.

Adierazten du, baita ere, tramitazio azkarra egin dela, zerbitzua lehenbailehen adjudikatu ahal izateko. Eta, horregatik, azaroaren 25ean egingo den udalbatzarraren ohiko bilkuraren zain egon gabe, ezohiko bilkura hau deitu duela, adjudikatutako zerbitzua berehala martxan jarri ahal izateko.

Bukatzeko, eskerrak ematen dizkie Juanjo eta Mertxe Curiel anai-arrebei eta beren ama Anttonitari azken hamar urteotan egindako lanagatik. Esker ona agertzen dio, baita ere, Orioko Zaharren babeslekuko zuzendaritza-batzordeari eta, aldi berean, ongietorria ematen dio Mikel Rekarte Urretabizkaia adjudikaziodun berriari eta eskerrak ematen dizkie lehiaketara aurkeztu diren beste eskaintzaileei, Saioa eta Isabeli.

Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta adierazten du Orioko «Zaharren babeslekua» taberna-jatetxearen zerbitzua eta horren garbiketa- eta mantentze-zerbitzua kontratatzeko tramiteak neketsuak izan direla, eta txosten tekniko ugari idatzi behar izan direla. Adierazten du bere talde politikoak espero eta desio duela «Zaharren babeslekua»-ren zuzendaritza-batzordea gustura egotea aurrerantzean, Mikel Rekarte Urretabizkaia adjudikaziodun berriak egingo duen eskaintzarekin.

2.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,